

Tokiko ekonomia garatzeko funtsezko moneta

Euskal Moneta elkarteko kideak dira Xebax Christy (Aiherra, 1979) eta Mendi Esteban (Ezpeleta, 1988). Informatika eta Artearen historia ikasi dituzte hurrenez hurren. Ekonomian ere trebatu dira tokiko moneta antolatzeko. 60 lagun inguru ari dira lanean euskal moneta zirkulazioan jartzeko: Eusko izenekoa. 2013ko urtarrilaren 31n jarriko da abian.

| MIKEL ASURMENDI |

Argazkiak: Dani Blanco



Mendi Esteban eta Xebax Christy, Euskal Moneta elkartearen eta Eusko monetaren sortzaileetako bi.

EUSKAL MONETA elkarteko kideok 2010eko azaroan ezagutu zituzten Akítaniako (Òlt e Garona) Ville-neuve-sur-Lot herriko Abeille monetaren kudeatzaileak. Harremanetan jardun ondoren, tokiko moneta sortzea pentsatu zuten.

Jende anitz aurkitu dute proiektuaz interesatua. 2011ko ekainean elkartea eratzen hasi ziren eta urte bereko irailean abian jarri zuten. Heldu den urtarrilaren 31n jaulki-ko da euskal moneta: Euskoa. “Iparraldeko hainbat elkarterekin

bildu gara haien iritzia ezagutzeko. Tokiko ekonomiaren garapenean nola ingurumenean ari direnak, baita gai sozialetan edota euskalgintzan ere. Tokiko moneta sortu nahi dugula erran diegu, zabalki galdetu diegu, zabalki bildu